

## **HONDARTZAKO FUTBOL ARAUDIA-2019-2020**

	<b>BENJAMINAK LH3-4</b>	<b>ALEBINAK LH5-6</b>
<b>JOKALARI KOPURUA</b>	6 + atezaina	
<b>ALDAKETAK</b>	Aldaketak atsedendietan bakarrik egingo dira, jokalariren batek min hartuz gero izan ezik. Kasu hauetan, gutxien jokatu duen jokalaria sartuko da, baina ez da aktan apuntatuko.	
<b>JOKA DAITEZKEEN ZATI KOPURUAK</b>	Gehien eta gutxien jokatu duten jokalarien artean, gehienez zati baten aldean egon daiteke, (luzapenak barne). <i>Adibidez, taldekideren batek 4 zatiak jokatu baldin baditu, beste guztiek 3 zati jokatu behar dituzte.</i>	
<b>ATEZAINAK</b>	Gehienez 2 zati joko ditzake atezain gisa. <i>(4 zatiak joko ditzake, baina 2 atezain eta 2 jokalarari moduan izan behar du, eta gogoratu kasu honetan, beste taldekide guztiek 3 zati jokatu beharko dituztela).</i>	
<b>IRAUPENA</b>	10 minutuko 4 zati. (4 x 10)	
<b>ATSEDENALDIAK</b>	3 minutukoak	
<b>PARTIDUKO AZKEN EMAITZA</b>	Partidu amaierako golen arabera. <i>Talderen bat 10 goleko diferentziaz irabazten ari bada, hortik aurrerako golak ez dira aktan apuntatuko. Akta itxita geratzen da.</i>	Partidu amaierako golen arabera.
<b>FALTAK</b>	Falta guztiak zuzenekoak izango dira, salbuespen batekin. Taldekide batek bere atezainari pasa eta honek eskuekin hartzen duen kasuetan falta ez zuzena izango da.	
<b>JOKOZ KANPOA</b>	Jokoz kanpoa, area eta bere luzapenaren barruan bakarrik zigortuko da.	
<b>ZIGORRAK</b>	Epaileak hala baderitzo, 2 minutuko kanporaketa agindu dezake eta txartel horia atera. Txartel gorria ateraz gero, jokalarari hori kanporatua izango da partida amaitu arte eta bere ordez beste jokalarari ordurarte gutxien jokatu duen taldekidea sartuko da 2 minutu beranduago. 2 minutuz jokalarari bat gutxiagorekin egon beharko dute.	
<b>TXAPELKETA MODUA</b>	Ez dago txapelketarik	Txapelketako irabazlea, kanporaketa bidez erabakiko da, final erdi eta finalekin.